



# **GAKOAK ETA ESPERIENTZIAK**

**BAZTERKETA ARRISKU  
EGOERAN DAGOEN  
GAZTERIAREN  
LIDERGOAREN BIDEZKO  
PARTE-HARTZE  
KOMUNITARIOA**

Adsis Fundazioa eta  
Sorginlore Gizarte Elkartea



**CC BY-NC-SA 4.0 DEED**

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa

**Egilea:** Assumpta Ayerdio Olaizola

**Elkarlana:** Adsis Fundazioa–Balioen Hezkuntza, Sorginlore Gizarte Elkartea, ADSIS Fundazioa–Oinarrizko Lanbide Heziketa: Donostia, Gasteiz eta Getxo–Leioa, Flora Tristán, Flaves eta Vayamos

**Itzulpena:** Irakurketa Erraza

**Diseinua eta maketazioa:**

**FEMGARABAT .**

**Lan Taldea:**



**Babesleak:**



# AURKIBIDEA

## 1.

### TESTUINGURUA

---

- 4 EREMUA
- 4 HELBURUA
- 4 METODOLOGIA
- 5 IKUSPEGIAK
  - 5 Intersekzionalitatea
  - 6 Generoa eta feminismoa
  - 6 Kulturartekotasuna

## 2.

### GAKOAK

---

- 8 PROZESUA
- 12 PARTE-HARTZAILEAK
- 17 GAKOEN LABURPENA

## 3.

### ESPERIENTZIA

---

- 22 MUNDUKO AUZOEKIN IKASTEN, BERTAKO AUZOAN EKIN
  - 22 Donostia
  - 23 Gasteiz
  - 24 Leioa-Getxo
  - 25 GAKOAK Donostia, Gasteiz eta Leioa
- 29 FLORA TRISTÁN PERUTAR EMAKUMEAREN ZENTROAREKIN (Perú) LOTUTAKO ESPERIENTZIAK
  - 29 FLAVES
  - 34 VAYAMOS-SJL

## 4.

### ONDORIOAK

---



# 01

## TESTUINGURUA

### EREMUA

---

Dokumentu hau *Munduko auzoekin ikasten, bertako auzoan ekin* proiektuan kokatzen da. Elkartasunaren kultura eta justizia sozialarekin eta pobrezia- eta bazterketaren aurkako borrokarekin konpromisoa hartu duten herritarrak eraikitzen laguntzea du helburu.

Hau lortu nahi da bazterketa arrisku egoeran dagoen gazteriaren lidergoaren bidezko parte-hartze komunitarioa sustatzearen bitartez eta gaitasunak, giza eskubideak, genero-berdintasuna, erantzunkidetasuna eta iraunkortasuna indartzearen oinarriarekin.

Horretarako, Adsis Gizarte Fundazioaren Donostiako, Gasteizko eta Leioa-Getxoko oinarrizko lanbide heziketako zentroyen (hemendik aurrera OLHZ) inguruan sartzen ditu hego-iparraldeko jakintzen elkarrizketa, diagnosi komunitario bidezko herriko hezkuntza feminista eta bizipen-prestakuntza eta parte hartze komunitarioko esperientzia pilotuetako tokiko eragileekin elkar-sortzea.

### HELBURUA

---

Bazterketa arrisku egoeran dauden gazteen hezitzaileentzako laguntza materiala izatea nahi da. Komunitatearen parte-hartzea gazte horien motibazioa eta gaitasuna areagotzeko estrategia eta metodologia bezala sustatu nahi duten hezitzaileentzako da, gazteak haien bizitzan eta inguruneetan subjektu protagoniko, bidezko eta solidarioak izan daitezen.

### METODOLOGIA

---

Edukia oinarritzen da proiektuaren garapenean parte hartzen duten pertsonen partekatutako bizipenetan eta ezagutzetan. Ezagutza kolektiboa eta esanguratsua da.

Hain zuzen ere, ekarpenak horrela jaso dira:

- ✧ Hiru lurraldeetako Adsis Fundazioko balioetan hezteko tekniken behaketa fitxa.
- ✧ 1. mailako ikasleei eskualdatzeko saioetan eta esperientzia pilotuen ebaluazioetan zehar parte hartu duten ikasleen lekukotasunak.
- ✧ Esperientzia pilotuetan iraunkortasunean interesa duten tokiko eragileekin bilerak.

- ✧ 3 OLHZetako hezkuntza taldeen ebaluazioa.
- ✧ Limako Flora Tristán CMPra egindako prestakuntza bisitaren txostena.
- ✧ Flora Tristan CMParekin lotutako 2 gaztek EAera egindako bisita sistematizazioa, zehazki Vayamos eta Flaves gazteen sareen bidez.
- ✧ Proiektuaren bitartez sorutako parte-hartze komunitarioko esperientzien kasuen fitxak (Donostiako, Gasteizko eta Leioa-Getxoko kasuak). Baita proiektuan zehar elkarrizketa egon den Flora Tristán CMPtik sustatutako 2 esperientzien kasuen fitxak (Limako kasuak).
- ✧ EAEaren mailako proiektu-taldearen eta Adsis Fundazioko hezkuntza eta lan-kidetza arduradunen arteko kontrastea.
- ✧ Parte hartu duten 3 OLHZetako irakasleen topaketa-jardunaldia (2022ko iraila, Donostia).
- ✧ Parte hartu duten 3 OLHZetako eta Limako gazteen topaketa (2023ko martxo, Donostia).

Sorginlore Gizarte Elkartek kokatu eta batu ditu ahots guztiak. Sorginlore Gizarte Elkartea arduratu da proiektuaren lehen fasean prestatzaileak prestatzeaz eta ikas-kuntzak eta gakoak identifikatzeko eta helarazteko mekanismoak sortzeaz.

## IKUSPEGIAK

---

Proiektuaren garapenean egiaztatu da ikuspegi hauek sartzea egokia dela:

### ◆ Interseksionalitatea

Tresna bat da gizarte-kategoria desberdinak nola elkargurutzatzen diren eta elkar-gune horiek aparteko zapalketa eta pribilegio bizipenak nola sortzen dituzten aztertzeke, ulertzeke eta erantzuteke. Maila horietan aurkitzen ditugu pertsona bakoitzaren identitatea eta egoerak, testuinguruko egiturazko elementuak eta sistemaren zapalketa ardatzak.

- ✧ Aniztasunaren azterketa sakona dakar, kategoria ez-binarietan antolatuta, ez erredukzionalista eta dinamikoa.
- ✧ Gizataldeak talde homogeneoak direla izatearen ikuspegia eteten du.
- ✧ Adierazten du pertsona bakoitzaren subjektibitateak eta lekuak aldi berean pribilegio eta zapalketa baldintzei erantzun diezaieketela.
- ✧ Zalantzan jartzen du zer errealitate erabiltzen dugun normal bezala.
- ✧ Botere harremanak aztertzen laguntzen du.

- ✧ Motxila eta abiapuntu desberdinak ulertzen laguntzen du.
- ✧ Asmo eraldatzailea duten aliantza solidarioak antolatzen lagun dezake. Diskriminazio-hierarkia baten alde borrokatu gabe eta zapaldu gabe, baizik eta hauek identifikatzearen bidez: sareak norekin sor ditzakezun eta modu estrategikoan zein pribilegio erabil ditzakezun.

## ◆ Generoa eta feminismoa

- ✧ **Generoa:** pertsonen sexuaren arabera ematen zaizkien ezaugarrien, lekuen eta rolen eraikuntza sozial, kultural eta historikoa da, sexua modu bitarrearantz ulertuta. Patriarkatutik eta androzentrismotik bideratuta dago. Patriarkatua gizonen autoritatean eta emakumeen gaineko nagusitasunean oinarritutako antolaketak sozial, politiko, ekonomiko eta erlijiosoa izanik eta androzentrismoa gizonak unibertsoaren erdigunetzat hartzea, giza espeziearen errealitatea eta esperimentzia unibertsala aztertzeko parametroa izanik.
- ✧ **Genero-ikuspegia:** generoen eraikitzeak desberdintasuna daraman neurrian, edozein ekimenen eragina diseinatu, abian jarri eta neurtzeko orduan, kontuan hartu behar ditugu pertsonen egoera, kokapena, ahotsak eta premiak (praktikoak eta estrategikoak) generoaren arabera. Horrela, generoagatiko desberdintasunak ezabatze eta sistema eraldatze aldera.
- ✧ **Feminismoa:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen abiatzen diren eta eraldaketa sozial globala helburu duten teoria sozialaren, praktika politikoaren eta mugimendu politiko, kultural, ekonomiko eta sozialen multzo heterogeneoa. Genero-eraikuntza zalantzan jartzetik, botere-harremanak modu interseksionalean eta antiarrazistan jorratuzetik, indarkeriarik gabeko eskubideak eta bizitzak benetako aldarrikatze eraginkorretik eta iruditeria eta harreman osasuntsu berriak eraikituzetik.

## ◆ Kulturartekotasuna

Kulturarteko ikuspegiak asmo politikoa du. Gizartean jada badagoen kultura-aniztasunetik abiatuta (ez soilik jatorrizko etniari edo aniztasunari dagokionez), kultura-sintesi berri bat garatzeko asmo politikoa, hau da, lurraldeko eta gizarte eta ekonomia espazio berari lotutako gu bat. Bertan alde guztiek sentitu ahal izango dute partaide direla eta elkarrekin bizi ahal izango direla, diskriminaziorik gabe eta interdependentziaz jakitun.

Horregatik, taldeko ikaskuntza-prozesu dinamiko bezala proposatzen da, partekatutako toki, kode eta aukerak sortzeko. Eta funtsezko hiru oinarri hauek ditu:

- ✧ Aniztasuna ez da ikuspegi bat, existitzen dena baizik. Ez da pertsona ezberdin bat, gizarte osoa baizik. Ez da, beraz, guregandik kanpo dagoen zerbait, ez da gainerako pertsonen duten zerbait, arautik kanpo daudenek, "beste batzuk", "arrotzak edo atzerritarrak" bezala hartzen ditugunek duten zerbait. Gainera, ezaugarri horiek direla eta, gure arazoaren erantzuletzat hartzen ditugunak, ara-

zo horiek eskasia edo balioak, tradizioa, identitatea eta halakoak galtzea izanik.

- ✧ Diferentziak ahalik eta modu positiboenean eta adiskidetzailenean negoziatzea. Pertsonen arteko, talde arteko eta talde barruko elkarrizketa, mugimenduak sortzea, elkarrekintzak eta elkarrekiko erlazioetatik abiatuta. Baita partekatutako kode eta esperientziak sortzetik abiatuta ere.
- ✧ Kulturaren, diskurtso eta teoriaren alderdiak alderdi materialekin eta praktikoekin lotzea, elkarrizketa eta bizikidetzaren benetan horizontalak eta bidezkoak izan daitezen. Politiken definizio parte-hartzailea, baliabideen banaketa, aukerak sortzea, sentitutako arazoei irtenbide zehatzak elkarrekin bilatzea, eskubiak gauzatzeko aukera...

☞ 3 ikuspegi horietan oinarritzen den begirada eta praktikaren garrantzia funtsezkoa da parte-hartze komunitarioaren fase guztietan. Parte-hartze komunitarioaren nahi-tasuna eta eragina baldintzatzen ditu:

- \* **Diagnosian:** zehaztutako premiak, arazoak edo aukerak noren ahotsei, ulertzeko moduei eta lehentasunei erantzuten die?
- \* **Diagnosiaren emaitzetan oinarritutako esperientzia definitzerakoan:** zer helburu dugu, zertarako eta zergatik planteatzen da ekimena? Nork eta nola erabakitzen du esperientziaren izaera?
- \* **Esperientzia hori abian jartzekorakoan:** nola ematen dira erantzukizunak eta zereginak? Zein pertsona eta eragilerekin bilatzen dira sinergiak? Zer gaitasun eta jakintza hartzen dira aintzat?
- \* **Ebaluatzerakoan:** Zein eraginetan jartzen da arreta? Zein ekarpen hartzen dira kontuan? Zer ebaluazio-mekanismo ematen dira?

# 02

## GAKOAK

Edozein bazterketa arrisku egoeran dauden gazteriaren parte-hartze komunitarioko prozesutan honako hauen parte-hartzea izan behar duela uste dugu:

- \* **Gazteria:** neskek, mutilak eta pertsona ez bitarrak. Proiektu honetan, OLHZko ikasleak.
- \* **Hezkuntza-taldeak.** Proiektu honetan, OLHZko langileak (zuzendaritza, orientatzailea, gelako eta tailerreko irakasleak, administrazioa).
- \* **Tokiko eragileak:** auzokoak eta auzoko eta herriko taldeak edo erakundeak.

Identifikatutako gakoaren artean, batzuk zehazki protagonisten multzo horietakoren bati buruzkoak dira. Beste batzuk berriz, prozesuarekin lotuta daude orokorrean eta prozesua koordinatzen eta dinamizatzen duenak hartu behar ditu kontuan bereziki. Prozesu izaerari dagozkienekin hasiko gara.

## PROZESUA

### ◆ OROKORRAK

Parte hartze komunitarioa prozesu sozial bezala definitzen da. Prozesu horretan premia, arazo edo interes-guneren bat partekatzen duten berariazko biztanle-taldeak, hausnarketa kritikoaren eta ikaskuntza kolektiboaren bidez, beren garapenerako eta guztion onerako oztopoez eta aukerez jabetzen dira, erabakiak hartu eta horiek gainditzeko eta eraldatzeko mekanismoak ezartzen dituzte.

Definizio horren arabera, funtsezkoa da:

- ✧ Ekimena prozesu bezala ikustea, ez unean uneko, behin gertatutako edo egoeraren araberrako zerbait bezala. Hortik:
  - Prozesua definitzeko eta garatzeko kalkulatzeko, planifikatzea eta behar duen denbora ematea.
  - Planifikazio orokorretan sartzen dela zaintzea.
  - Aukerak neurtzea eta fase bakoitzean lor daitezkeen emaitzak baliostea, mailakatu, metagarria eta ez-lineala izango dela jakinda.
- ✧ Prozesu soziala den heinean, "irakurtzen" jakitea prozesu hori sartuta eta kokatuta dagoen dinamika propioa, testuingurua, egoera eta egitura eta parte



hartzten duten pertsonen eta eragileen ezaugarri zehatzak. Beste esperientzia batzuetan inspira gaitezke eta horren arabera egokitu.

- ✧ Ekintzara bideratuta dagoela eta asmo eraldatzailea duela gogoratzea. Ez ginateke ideian geratu behar, ezta egiteagatik egin ere: ideia alde guztiek interesgarritzat jotzen duten eta sentitutako premia edo desira bati erantzuten dion praktika edo ekintza batean lurreratu behar da. Aldi berean, proposatu dugun helburua bistatik galdu gabe gauzatu.
- ✧ Guztien ongia eraikitzean, prozesua bera azken emaitza bezain garrantzitsutzat hartzea: parte-hartze komunitarioaren prozesuak berak bizikidetzeta eta ongizate-sentipena hobetzen lagun dezake, lortzen den elementu materialetik (azpiegitura, baratza, zerbitzua...) haratago.
- ✧ Fase guztiei balioa ematea (konturatzea – erabakiak hartzea – mekanismoak/jarduera ezartzea) eta etengabeko jarraipenean eta ebaluazioan berrelikatzen direla ziurtatzea.
  - Konturatzeko prestakuntza teorikoa eta bizipenezkoa, jakintzen trukea eta sistematizazioa egiteak laguntzen du.
  - Hasieratik komeni da taldean arauak, konpromisoak eta mugak definitzea. Gardentasunez helburuei, baliabideei, denborei, erabakiak hartzean eta gauzatzean parte hartzeko aukerei eta erantzukizunei, informazio-fluxuei eta koordinazioari... dagokienean.
  - Nolabait zentzua duen eta adostuta dagoen desordena dela konturatzeta.

## ◆ PARTE HARTU AHAL IZATEA / JAKITEA / NAHI IZATEA

Pertsona guztiek parte har dezaketela esateak bakarrik ez du hori benetakoa izatea eragiten, ezta denak eroso, gai, seguru eta libre sentitzea parte hartzeko ere.

Parte har dezakezula esatetik:

- » Eskubidea duzu
- » Baimena ematen dizute
- » Behin eta berriz eskatzen dizute

Parte hartzeko benetako aukera izatera pasatzea:

- » Baliabideak bideratu
- » Irisgarritasuna bermatu
- » Erabakiak hartzean eragina izango duen parte-hartzea sortzea

Parte har dezakezula eta nahi duzula sentitzera pasatzea:

✧ **Gaitasunak:**

- Parte-hartzaileen profiletara egokitutako mekanismoak ezartzea esperientzia gaitzaileak bultzatzeko, komunikatzeko, taldean, giro pluraletan egoteko eta lan egiteko gai izateko, interes edo iritzi desberdinei indarke-riarik gabe aurre egiteko... gai izan eta sentiarazteko.
- Sarritan txikitzat edo ez konstruktibotzat jotzen diren ahalmen desberdi-nak ikusaraztea eta garrantzia azpimarratzea.

✧ **Motibazioa:**

- Hizkuntza, giroa, entzutea eta elkarrizketarako eta erabakitzeko mekanis-moak eta gardentasuna zaintzea pertsonengan honako hauek eragiteko:
  - » seguru, aitortuta eta ongi etorriak sentitzea,
  - » ekarpena egiten dutela pentsatzea,
  - » parte-hartzea baliagarri, merezi duen zerbait izango dela pentsa-tzea.
  - » eragin eta itxaropenik gabeko sumin eta etsipenaren blokeotik ate-ratzea.
- Garatutako prozesuaren arabera, parte-hartzaileen talde guztietan fun-tsezko gakoa konektatzea dela ikusi dugu. Neurri handi batean, gainerako erronkek lotura dute hasierako erronka horrekin, eta, gero, jarraia eta ja-rraitua, lotzeko eta motibatzeako erronkarekin. Horregatik, proposatutako elementu guztiek motibazioaren alderdia elikatzen dute.
- Garrantzitsua da konturatzea eta helaraztea parte hartzea erantzukizuna eta plazera dela, erabakiak hartzean eta onartzean eta prozesuan.

## ◆ **LEKU SEGURUAK**

Azken puntuari dagokionez, funtsezko elementuetako bat leku seguruak sortzea da. Bertan elkarri kontu diezaiokegu eta entzuten gaituztela badakigu, edo isilik gera gai-tezke eta, hala ere, badakigu errespetatuak izango garela eta parte sentitzen gara, ez epaituak sentitzen gara, ez dugu hanka sartzeko beldurrik edo besteek txorakeriak esaten ditugula pentsatuko dutenaren beldurrik, guk esatea espero dena edo saioa zertaz doan ez ondo ulertzeagatik nahastearen lotsarik gabe, ez gaude behartuta gehiengoaren iritziarekin ados egotera...

Hainbat elementuk laguntzen dute horretan:

✧ **Honako hauei arreta jartzeak:**

- Nork ez du parte hartu, zer lidergo eman dira, hauek aintzat hartu, beste batzuk ere ikusarazi.

- Ahots ez-normatiboak: baimendu eta entzun; zer ulertzen dute proposatutako balioez, zerk motibatzen ditu, zer interes dituzte, zer egin nahi dute, nola parte hartuko lukete, nola komunikatzen dira, zer kostatzen zaie, zer ez zaie gustatzen, zer ekarpen egiten dute, zer erantsiko lukete, zer ez dute egin nahi, zer pertsonarekin/erakunderekin lan egin daitekeela uste dute, nola ikusten dute auzoa eta gizartea...

#### ✧ **Honako hauetaz konturatzeak:**

- Ez da beharrezkoa beti adostasun idealak lortzea, neurriak hartu behar badira, agian une jakin batean posible eta komenigarriena den baten alde egin daiteke. Baina, beste kasu batzuetan, onura zuzena ulermen handiena da, eta hortik pertsonen arteko enpatia. Izan ere, ados ez badaude ere, besteen jarrera uler dezakete, gogoeta egin eta begirada egokitu, beste pertsonaren lekuan jarri. Hori, berez, taldeko urrats sortzaileetarako indar handiko leku berri bat da.
- Beti ez dira izango leku baketsuak eta lasaiak, konfrontazioa egon daiteke, naturala da: ikuspuntu desberdinetik hasten da eta, batez ere, aurreiritzie-tatik; premia eta espektatiba desberdinak daude; bakoitzak uste du leku berezi bat edo gehiago merezi duela arrazoiren batengatik -baztertuta-ko talde bateko kide izateagatik, hor denbora gehiago emateagatik, gaiaz gehiago jakiteagatik... Garrantzitsua da elkarrizketa zaintzea, parte-hartzaile guztiek pertsona bakoitzak izan dezakeen arrazoiren edo egiaren zatia onar dezaten, pertsona bakoitzak bertan duen legitimitatea onar dezaten. Halaber, funtsezkoa da norberaren botere- edo pribilegio-tokiez jabetzea.

#### ✧ **Emakume, trans\* eta jatorri guztietako pertsonen parte hartzea ziurtatzeak:**

- Hitz egiteko txandak: minutu bat, normalean hitz egiten ez duen pertsona batek hitz egin nahi badu, aukera emango zaio, txandakatu (ez du pertsona berak bi aldiz jarraian hitz egingo gainerakoek hitz egin aurretik), isiltasuna errespetatu.
- Lekua antolatu: biribila, aurpegira begira eta maila berean.
- Formatu desberdinak: bilerak, taldeak (generoaren, hizkuntzaren, jatorria-ren, kideatasunaren arabera...), banakakoak.
- Kanal desberdinak: marrazkiak, argazkiak, abestiak, online, postontzia, ahozkoa, hainbat hizkuntzatan eta itzulpena bilatu, aukerak adierazi...
- Osoko bilkuran modu anonimoan partekatu.
- Bizikidetzari buruzko dekalogoia egin.
- Ekimenari buruzko informazioa eta materialak eskuragarriak, argiak eta errazak dira: hizkuntza(k), grafikoak, irudiak, irakurketa erraza, audioak...

✧ **Parte hartzaile bakoitzaren ongizatea eta ekimenean zehar giro ona zain-  
tzeak:**

- Alderdi ludikoak erabili
- Lorpen txikiak partekatu eta ospatu
- Pertsona bakoitza izenez agurtu, begiratzen
- Nola dauden galdetu
- Bakoitzari nahi duen bezala deitu
- Pertsona bakoitzaren ekarpenak aitortu
- Esaten dena eta nola esaten den zaindu: komunikazio feminista eta ez bor-  
titzaren sustatu
- Indarkeriak gelditu, horiek eztabaidatu, bitartekaritza erabili gatuzkak  
areagotzea saihesteko

## **PARTE-HARTZAILEAK**

---

Gako orokor horiekin erabat lotuta, bazterketa-arriskuan dauden gazteek gidatu-  
tako prozesu komunitarioetan parte hartzen duten pertsonen multzo bakoitzerako  
gako espezifikoago batzuk identifika ditzakegu.

### ◆ **GAZTERIA**

✧ **Erronkak:**

- Motibatu/proposamenarekin "harrapatu"/itxaropena eman.
- Eskubideen, erantzukizunaren eta eraldaketaren subjektutzat aitortu.
- Parte senti daitezela (ekimen baten parte, ingurune baten parte, norbera-  
ren eta besteen aurreiritziak gaindituta).

✧ **Gakoak:**

1. **Haien gaitasunetan sinestea**, haien ezagutzak baloratzea (teknikoak, bizi-  
tzakoak, sozialak), haien erabakiak eta erritmoak errespetatzea eta jarre-  
ra paternalistak eta autoritarioak baztertzea.
2. Taldearen energia, gatuzkak, premiak eta erritmoa **entzutea**.
3. Prozesuaren osotasuna azaltzea eta erreala eta hurbila bilakatzen joatea  
ekintza zehatz eta praktikoen bidez, ekintza horien definizioan eta bete-  
tzean zuzenean parte hartzen badute. **Prozesuaren eta ekintzaren arteko  
lotura** hori etengabe sentiaraztea.
4. **Proposamenak haien errealitateekin zerikusia izatea** (arazoak, kezka-  
tzen eta gustatzen zaizkien gaiak) eta beste pertsona batzuen alde zerbait

egiten dutela sentiaraztea.

5. Prozesuaren **mugekin erabat gardenak** izatea (denborak, baliabideak, zertan erabaki dezaketen, proposamenak zer harrera izan dezakeen auzoan...).
6. Egindakoa, aurrerapenak eta zailtasunak etengabe partekatzea. Haien ekarpenak (ideiak, informazioak, erabakiak...) **kontuan hartzen** direla ikus dezatela.
7. Fase guztietan partaide izan daitezela: kanalak, tresnak, barne egon beharreko eragileak, egin beharreko galderak, gauzatu beharreko ekintzak zehaztean; gauzatzean eta ebaluatzean. **Parte hartzeko hainbat modu ahalbidetzea eta aintzat hartzea.**
8. Frustrazioari, beldurrei eta desioei arreta berezia jarriz **bide-lagun** izatea. Haien erosotasun-eremuaren ertzak zabaltzen saiatu, hautsi gabe.
9. Hezitzaileak eta dinamizatzzaileak erlazioa daitezela argitasunarekin eta gertutasunarekin eta norberaren gizatasuna aitortuta (inperfekzioa, sentikortasuna, tabu eta muga emozionalak, ezagutza eta gaitasuna).
10. Zereginak banatzean, generoaren edo jatorriaren arabera naturalizatutako rolen errepikapena saihestea.
11. **Erabakiak hartzean eta talde-lanean**, ez generoaren, jatorriaren edo gaitasunen araberako botere-erlazio asimetrikoak sustatzea.
12. Ez epaitzea. Haien kontakizunaren egiazkotasuna entzutea eta aitortzea.
13. **Ulermena eta parte-hartzea erraztuko duten hizkera eta komunikazio-elementuak erabiltzea**, nahiz eta gaztelania gutxi jakin edo alfabetatze urria izan: irakurketa erraza, elementu grafikoak, *visual thinking*...
14. Zoriontzea eta ospatzea.
15. Musika, eta gorputzarekin eta emozioekin konektatzeko dinamikak erabiltzea; **erosotasun-, gozamen- eta informazio-lekuak** sortzea.
16. Ingurunearen ezagutza ahalbidetzea: erakundeekin bisitak-elkarrizketak, auzora bisita gidatuak, mapaketak...
17. **Haien errealitatea ingurunearekin eta globalarekin lotzen** laguntzea, bai egiturazko desberdintasunei dagokienez, bai egoeraren araberako egoerei eta eraldaketa-mugimenduei dagokienez.
18. **Hainbat belaunalditako** pertsonen parte-hartzea bilatzea, batez ere haur eta adinekona, bai eta beste gazte batzuen ere. Ustekabeko kidetasunak aurki daitezzen sustatzea.
19. **Beste lurralde, prestakuntza-zentro eta latitude batzuetako** gazteekin topaketa sustatzea.
20. Gazteen eta tokiko administrazio publikoko ordezkarien arteko elkarri eragitea ahalbidetzea.

21. Elkarrekin zerbait **ukigarria** fisikoa eta duina eraikitzea, komunitateak ikus-  
teko eta baloratzeko modukoa.

## ◆ HEZKUNTZA-TALDEAK

### ✧ Erronkak:

- Desikastea: adulto-zentrismoa, begirada koloniala eta heteropatriarkala (bazterkeriari, kulturei eta generoei buruzkoa).
- Haien esku-hartzean parte-hartzea metodologia bezala sartzea eta parte-hartze komunitarioa ikasleentzako ikaskuntza- eta hazkunde-prozesu bezala eta ingurunearekiko loturak ehuntzeko prozesu bezala.

### ✧ Gakoak:

1. Haien errealtateetara (esperientzia, ezagutzak, lan egiten duten gazteekin, denborak...) egokitutako **prestakuntza-prozesuak** gauzatzea (paradigmei, ikuspegiei, metodologiei eta teknikei buruzkoak), praktikan jartzeko **laguntza erregularrarekin**.
2. **Prestakuntza-trukeak** ahalbidetzea **hainbat latitude eta testuingurutan** bazterketa-arriskuan dauden gazteekin parte-hartze komunitarioaren eta parte-hartzearen ikuspegitik lan egiten duten erakundeekin.
3. Talde osoaren **genero-ikuspegia** ziurtatzea.
4. Erakunde-mailan parte-hartzearen alde egitea metodologia bezala eta komunitatearen **parte-hartzearen ekimena zentro/zerbitzu/programaren proiektu bezala** onartzea, erakundearen helburuekin bat etorrita.
5. Hezkuntza-talde osoari **prozesuaren marko globala** jakinaraztea. **Proiektuaren helburuak eta mugak oso argi uztea**. Planifikatutakoa, egindakoa, ezarritako aliantzak, aurrerapenak eta zailtasunak birkokatze eta sortutako inpaktua bateratzeko **une erregularrak ezartzea**.
6. Marko globala **taldean eraikitako plangintza** errealista batean lurreratzeta, zereginak eta azpi-zereginak definituko dituen, arduradunak, denborazkotasuna eta informazio-fluxuak ezarriko dituen.
7. **Ekimena egunerokotasunarekin lotzea**, ez dadin zama gehigarri eta gurea ez denaren moduan bizi, baizik eta programazioetan sartzen den eta erronkei erantzuten lagun diezaiokeen ekarpen bezala.
  - a. Haien espezialitateei eta normalean egiten diren jarduera motei lotutako gaiak.
  - b. Kronogramekin eta plangintza orokorrekin bat datorren plangintza.
  - c. Ikasgelako, lantegiko edo aisialdiko saioetan erabil daitezkeen edukiak.
  - d. Erakundeak lehenetsitako gaitasun profesional eta sozialen garape-

na indartuko duten dinamikak eta jarduerak.

8. Elkarrekin eta argi eta garbi zehaztea **nork erabakitzen duen** (gazteek, tokiko eragileek, taldeko kide desberdinek) zer, noiz eta nola.
9. Helburu txikiak ezartzea eta lorpenak izendatzea – aitortzea – **ospatzea**.
- 10. Jabetzeko eta praktika hartzeko lan etengabea** egitea generoaren, jatorriaren, adinaren edo gaitasunen araberrako **rol naturalizatuak eta botere-harreman asimetrikoak** ez errepikatzeko esku-hartze hezitzailean eta parte-hartze komunitarioan.
11. Abiapuntuen aniztasunaz eta profilen ugaritasunaz konturatzeta. **Itxaropenak neurrikoak izatea**, aurreiritziak desegitea, parte hartzeko moduak negoziatzea.
- 12. Taldeak emozioak, trikimailuak, ikaskuntzak eta korapiloak partekatze-ko** uneak ezartzea.
13. Ahalbidetzea **lantaldeko kideek** – proiektuaren arduradunetatik kanpo-**auzokoekin** eta tokiko eragileekin ere **zuzeneko harremana** izatea.

## ◆ INGURUNEA

### ✧ Erronkak:

- Gazteriarri buruzko eta zehazki bazterketa-arriskuan dauden gazteei buruzko aurreiritziez jabetzea eta desegitea.
- Parte senti daitezela, elkarbizitza alde guztien artean sortzen den zerbait dela ulertuta eta parte-hartze komunitarioa auzoko bizitza hobetzeko subjektu izateko aukera moduan ulertuta.
- Tokiko eragileen eta auzotarren parte-hartze iraunkorra.

### ✧ Gakoak:

1. Ideia-fasetik **mapatzea eta tokiko eragile zein sareekin harremanetan jartzea**.
  - a. Hezkuntza-erakundeak
  - b. Adinekoen elkarteak
  - c. Establezimenduak (enpresak, dendak, jatetxeak...)
  - d. Aniztasun funtzionala duten pertsonen, pertsona arrazializatuek, emakumeek, LGTB taldeko pertsonen eta genero-disidenteeek... osatzen dituzten erakundeak edo haiekin lan egiten duten erakundeak.
  - e. Udaleko zerbitzu eta sail desberdinak: hezkuntza, gazteria, gizarte laguntza, kultura, enplegua...
2. Gazteak izan daitezela **premiaren, nahien eta ahalmenen diagnosi komunitarioaren** buru. Tokiko eragileen eta auzokoekin iritziak jasoko dira.

3. Abian jarri beharreko ekimena definitzea, diagnosiaren emaitzetan oinarrituta eta tokiko funtsezko eragileekin alderatuta.
4. Funtsezko eragileak eta auzoko pertsonak ekimenaren **antolaketan eta gauzatzean partaide izatea**. Parte hartzeko modu desberdinak ahalbidetu.
5. Saihestea **rol naturalizatuak** eta botere-harreman asimetrikoak generoaren, jatorriaren, adinaren edo gaitasunen arabera errepikatzea.
6. **Gardenak** izatea informazioarekin eta prozesuaren mugekin (ardurak, baliabideak, zertan erabaki dezaketen...), egindakoa, aurrerapenak eta zailtasunak etengabe partekatuta.
7. **Hedapen** argia, zuzena eta erakargarria egitea.
8. **Belaunaldien arteko topaketak** sustatzea.
9. Ekimenean **jai-uneak** sartzea (bazkaria, musika, ospakizuna).
10. Zentroa/zerbitzua/hezkuntza-programa ingurunera zabaltzea: **ate irekien** jardunaldia, jarduera partekatuak instalazioetan, auzotarrek ezagutzak/esperientziak partekatzea ikasgeletan eta tailerretan...
11. Ekimenak **harreman-alderdiak** zein jarduera edo **elementu hautemangarrien** eta zehatzen eraikuntza/egokitzapena/sorkuntza sustatzea.
12. Ekimena ez dadila noizean behingoa izan, ohikoa baizik.
13. **Nekez gertatzen diren loturak** (ikasleen, bizilagunen, tokiko eragileen artean) eta bizipen-egoera positiboak eta berritzaileak sustatzea.
14. Auzotarrak eta tokiko eragileak ekimenaren **iraunkortasun-mekanismoen** eraikuntza kolektiboan barne egon daitezela, aukeren, premien eta lehenetasunen arabera zereginak eta erantzukizunak zehaztu eta banatzearen bide.



## GAKOEN LABURPENA

Identifikatutako gakoak laburbildu ditugu autoebaluazioko edo orogarrirako 5 fitxatan, parte-hartze komunitarioa sustatzeko estrategia eta metodologia moduan, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen motibazioa eta gaitasuna handitzeko, subjektu protagonikoak, ekitatiboak eta solidarioak izan daitezen beren bizitzetan eta inguruneetan.

4 fitxa hezitzaileei zuzentzen zaizkie laguntzaile eginkizunean. Fitxa 1 ikastetxeetako arduradunei zuzentzen zaie eragile eginkizunean (planifikatzaileak, kudeatzaileak, arduradunak...).



### 1. LAN PERTSONALA

**Beldurrak:** nire beldurrez konturatzen naiz (ikasleek ni ez errespetatzea, helburuak ez betetzea, egoera edo gai batzuetan zer egin ez jakitea...).

**Motibazioa:** nire eta ikasleen motibazioan gorabeherak daudela eta elkarrekin lotura izan dezaketela onartzen dut.

**Espekatatibak:** "Ondo egitea"-ren kontzeptuari eta ikasleengandik espero dudanari buruz ditudan espekatatibak berrikusten ditut.

**Komunikazioa:** modu ez bortitzean, inklusiboan eta ez-sexistan komunikatzen naiz (hitzez eta ez-hitzezkoan).

**Aurreiritziak:** zalantzan jartzen ditut, aurreiritziak, generoaren, jatorriaren/arbasoen, adinaren, gaitasunen arabera naturala edo normatiboa denari buruzko nire estereotipo eta sinesmenak.



## 2. BENETAKO PARTE-HARTZEA

**Helburuak eta mugak:** ekimenaren helburuak eta mugak (balia-bideak, denborak, dimentsioa...) argi uzten ditut.

**Erabakia:** ikasleek funtsezko alderdietan erabakitzen dute (diseinua eta plangintza, harremanak izateko eragileak, kanalak, zertan, nork eta nola parte hartu...).

**Sentitzea:** probatzea, sentitzea uzten dut. Autonomia lortzean eta interdependentziaren konturatzean laguntzen dut.

**Hausnarketa eta ekintza:** hausnarketarako eta ekintzarako uneak batzen ditut. Ekarpen guztiei balioa eta lekua ematen diet (proposamenak, iritziak, gaitasunak, jakintzak, lehentasunak...).

**Erabakiak eta zereginak:** ziurtatzen dut erabaki-mekanismoek eta zereginen banaketak ez dutela asimetriarik eta rolik errepi-katzen.

**Jarraipena:** hartutako erabakien, prozesuaren eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiten dut ikasleekin.



### 3. LEKU SEGURUAK

**Entzutea:** taldearen energia, gatazkak, premiak eta erritmoa entzuten ditut. Hitzez adierazten ditut eta hortik aurrera jarduten gara.

**Negoiazioa:** gatazka badago, gelditu egiten naiz. Ez dut epaitzen, ezta aurrez aurre jartzen, taldean eztabaidatu eta negoziatzen dugu.

**Espazioaren kudeaketa:** egoeraren eta premien arabera, espazioak edo taldeak hauen arabera antolatzen ditut: generoa, antza edo mistoa.

**Ospakizuna:** arrakasta "txikiak" ospatzen ditut. Gozatzen dut eta gozatzen uzten dut.

**Moduak:** ibilbide, pribilegio eta botere-harreman ezberdinen jakitun izanda, pertsona guztiak parte hartzeko eroso, gai eta aitortuak sentituko direla ziurtatzen dut.



## 4. INGURUNEA

**Ezagutza:** ikastetxearen inguruko funtsezko espazioak ezagutzen ditut (ibilbideak, elkarre-sarea, zerbitzu publikoak, saltokiak, erreferentziatzeko pertsonak...).

**Mapatzea:** ikasleekin inguruko espazioen, sinbolizatzen dutenaren eta mugitzen dituzten emozioen mapaketa egiten dut.

**Elkarrekin:** parte-hartze komunitarioko ekimenetan, diagnostiketan ere, taldeko tresna eta jardueren erabilera sustatzen dut.

**Topaketa:** ikasleen eta harreman positiboak sortzea bilatzen duten inguruneko eragileen arteko elkarriketa eta elkarri eragiteko aukerak sortzen ditut.

**Benetakotasuna:** ingurunean ikus daitezkeen benetako elementu bat eraikitzea sustatzen dut, taldeko zereginaren, espazioa duin bihurtzearen eta harrotasunaren erakusgarri.

**Trukea:** ikasleen trukea sustatzen dut hainbat ikastetxe eta latitudeetako gazteekin.



## 5. ERAKUNDEA

**Lantaldeak:** ekimenaren barnean erakundeko sail ezberdinak (ikasgela, tailerra, tutoretza, orientazioa...) sar daitezen ahalbidetzen dut eta talde-lana sustatzen dut.

**Sinergiak:** inguruko erakunde publiko-pribatuekin harreman sinergikoa (egonkorra, jarraitua...) sustatzen dut, bai erakunde mailan, bai hezitzaile taldearen eta ikasleen aldetik ere.

**Mekanismoak:** mekanismoak sustatzen ditut ikasleek rol aktiboa izan dezaten (ordezkaritzak, batzordeak, kudeaketa parte-hartzailea, ikasleen ebaluazioak...).

**Gardentasuna:** prozesuaren esparrua (egitura, erabakitzeko aukerak, informazio- eta partaidetza-bideak...) gardentasunez jakinarazten dut.

**Integratzea:** parte-hartze komunitarioa integratzen dut zentroko programan.

**Trukea:** nire taldearen eta beste zentro eta latitude batzuetako hezitzaileen arteko topaketa eta esperientzien trukea sustatzen dut.

# 03

## ESPERIENTZIA

### MUNDUKO AUZOEKIN IKASTEN, BERTAKO AUZOAN EKIN

---

#### ◆ DONOSTIA

##### ✧ Datuak:

- \* **Datak:** 2020ko azaroaren 25etik – 2022ko ekainaren 18ra
- \* **Tokia:** Bidebieta auzoa. Donostia.
- \* **Parte-hartzaileak:**
  - **Gazteak:** 41 gazte, 15 eta 21 urte bitarteko 36 mutil eta 5 neska.
  - **Erakunde laguntzaileak:** Adsis Donostia Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa, Adsis Fundazioaren Balioetan Hezteko Programa eta Sorginlore Gizarte Elkarte.
  - **Tokiko eragileak:** anbulatorioa, Donostiako Udaleko parkeen eta lorategien saila, Ekialdeko barrutiko partaidetza saila, Elkarte gastronomikoa, Auzokide, Aramburu Farmazia, Gaztelekua, Haurtxokoa, Haziera, Pertsona erretiratuen etxea, Bideberri BHI, Kontadores, auzoko parrokoa, BLP plataforma, Bidebietako Kiroldegia, Erlauntza Sarea, Uliako baratzak, Xomorro elkarte.

##### ✧ Laburpena

[MUNDUKO AUZOEKIN IKASTEN, BERTAKO AUZOAN EKIN](#) ekimena 2020–2021 ikasturtean jarri zen abian Adsis Donostia OLHZ-n. Hasteko, taldeari prestakuntza eman zitzaion eta ikasleekin saioak egin ziren eta udaberrian, gazteek gidatutako [diagnosi komunitarioa](#) garatu zen. Diagnosi horri esker, ikastetxeko ikasleak Bidebieta auzoko eragileekin eta bizilagunekin elkartu ziren eta begiradak hurbildu, bizipenak trukatu eta sarea sustatu zituzten. Diagnosiaren funtsezko galdera hau izan zen: zer gustatzen zaizu gehien auzotik?

Erantzun gehienak hauek izan ziren: berdeguneak eta giza harremanen hurbiltasuna. Diagnosi horren ondorioz, 2021–2022 ikasturtean [parte-hartze komunitarioko espe-](#)

[rientzia](#) bat definitu eta abian jarri zen: hiri-baratze txiki bat, espazio publikoan dauden loreontzi batzuekin. Ekimen honek hazi bat jarri nahi dio komunitatearen ideari eta praktikari, hau da, guztion artean egiteari, ahaleginak batzeari eta Bidebieta auzoa osatzen duten pertsona guztien ona, trebetasunak, denborak eta potentzialaren garrantzia azpimarratzeari.

Ikasturtea amaitzean ekin zaio parte-hartze komunitarioko esperientziaren iraunkortasun-mekanismoen taldeko definizioaren prozesuari.

## ◆ GASTEIZ

### ✧ Datuak:

- ✱ **Datak:** 2022ko urtarriletik – 2023ko irailera
- ✱ **Tokia:** Lakua/Ehari-Gobeu auzoak. Gasteiz
- ✱ **Parte-hartzaileak:**
  - **Gazteria:** 41 gazte, 15 eta 21 urte bitarteko 36 mutil eta 5 neska.
  - **Erakunde laguntzaileak:** Adsis Gasteiz Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa, Adsis Fundazioaren Balioetan Hezteko Programa eta Sorginlore Gizarte Elkartea.
  - **Tokiko eragileak:** Lakua Auzo Elkartea, Lakua Sarea, Bizan Sansomendi, LH Lakuabizkarra, Lakua Institutua, Gasteizko Udala, Burdinberri, SL, Ferri, Lami Hornigaiak, Manaos taberna.

### ✧ Laburpena

MUNDUKO AUZOEKIN IKASTEN, BERTAKO AUZOAN EKIN ekimena 2022ko urtarri-lean jarri zen abian Adsis Gasteiz OLHZ-n. Hasteko, taldeari prestakuntza eman zitzaion eta ikasleekin saiok egin ziren eta udaberrian, gazteek gidatutako [diagnosi komunitarioa](#) garatu zen. Diagnosi horri esker, ikastetxeko ikasleak Lakuako auzoko eragileekin eta bizilagunekin eta Ehari-Gobeu industrialdeko enprekin elkartu ziren eta begiradak hurbildu, bizipenak trukatu eta sarea sustatu zituzten. Diagnostika hiru multzotan bideratu zuten: Adsis OLHZ, auzoa eta, azkenik, bizikidetza.

Erantzun nagusiak honako hauek izan ziren:

- Zentrotik gertu zeuden pertsona eta denda gehienek ez zuten prestakuntza-zentroa ezagutzen, eta hura ezagutzeko interesa zuten.
- Auzoko jendeak gehien baloratzen zuena berdeguneak ziren.
- Auzoan faltan botatzen zutena jarduera, denda eta elkarrekintza gehiago ziren. Izan ere, jende asko, aurrekoaren faltan, hiriaren erdigunera joaten da, han bititza

emanez eta auzoa jendez hustuz.

Diagnosi horren ondorioz, 2022ko udaberrian [parte-hartze komunitarioko esperientzia bat](#) definitu eta abian jarri zen: gehien kontuan izan genuena Lakua auzoa ikastetxetik eta Ehari-Gobeu industrialdetik banatzen zuen kanpoko espazioa izan zen. Kanpoko espazio handi bat, bereizketa bezala ikusteari utzi eta auzoarekin elkartzeko gune bezala ikusten hasi ginen espazioa. Gune komunitario bat sortzeko lehen hazi moduan, jardinera-eserlekua eraiki zen eta festa komunitario batekin hasiera eman genion.

Ikasturtea amaitzean ekin zaio parte-hartze komunitarioko esperientziaren iraunkortasun-mekanismoen taldeko definizioaren prozesuari.

## ◆ LEIOA-GETXO

### ✧ Datuak:

- ✱ **Datak:** 2022ko urtarriletik – 2023ko irailera
- ✱ **Tokia:** Ibarbarri industrialdea, Leioa
- ✱ **Parte-hartzaileak:**
  - **Gazteria:** 52 gazte, 15 eta 21 urte bitarteko 40 mutil eta 12 neska.
  - **Erakunde laguntzaileak:** Adsis Leioa Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa, Adsis Fundazioaren Balioetan Hezteko Programa eta Sorginlore Gizarte Elkarte.
  - **Tokiko eragileak:** Fidias Fundazioa.

### ✧ Laburpena

MUNDUKO AUZOEKIN IKASTEN, BERTAKO AUZOAN EKIN ekimena 2022ko urtarri-lean jarri zen abian Adsis Leioa OLHZ-n. Hasteko, taldeari prestakuntza eman zitzaion eta ikasleekin saioak egin ziren eta udaberrian, gazteek gidatutako [diagnosi komunitarioa](#) garatu zen. Diagnostika hiru multzotan bideratu zuten: Adsis OLHZ, auzoa eta, azkenik, bizikidetza.

Diagnosian parte hartu zuten pertsona askok bazekiten prestakuntza-zentro bat zegoela, baina ez zekiten zer berezitasun zituen. Diagnostika honetan, bizilagunek herriari buruz zituzten premiak zeintzuk ziren jakin nahi izan genuen. Bestalde, ikasleek beren premiak mahaigaineratu zituzten. Hori guztia kontuan hartuta, ikastetxeari ikusgarritasuna emateko hainbat ekimen gauzatzea erabaki zen.

Batez ere, bi ildotan lan egin zen:

- ✱ Fidias elkartearekin elkar eragitea: bi erakundeetako gazteak harremane-



tan jarri ziren jakinduriak partekatzeko.

- ✱ Topaketa Miguel de Barandiaran BHI institutuko DBHko 4. mailako ikasleekin: Adsis Fundazioko gazteek elkarrizketa prestatu zuten. Helburua OLHren inguruko aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea izan zen.

## **GAKOAK Donostia, Gasteiz y Leioa**

3 mailatan lagundu duten gakoak.

### ✱ **Gazteen parte-hartzea eta lidergoa:**

- Konfiantza-lekuak sortu.
- Gazteek entzun egiten zaiela senti dezatela. Haien proposamenak, ideiak, kexak eta itzaropenak entzuten dira.
- Horizontaltasuna dinamiketan, konfiantzazko loturak eta lotura seguruak sortu.
- Gertuko hizkuntza erabili.
- Haien proposamenetan oinarritutako jarduerak egiteak motibatzea eta barnean sartzea errazten du.
- Bakoitzari bere izenez deitu.
- Erosoen zein roletan/zereginetan sentitzen diren kontuan izan.
- Taldeka edo bikoteka lan egin, ez hainbeste banaka.
- Bakoitzaren gaitasunen, bakoitzak ondo egiten dakienaren garrantzia azpimarratzea.
- Gazteria protagonista eta partaidetza prozesuaren parte sentitzea.
- Ikaslegoaren ezagutzan sakontzea, bere beharrak eta patrioiak ezagutzeko, zein bere mekanismoak ulertzeko.
- Taldearen erritmoak kontuan hartu.
- Taldeko gatazkak denon artean heldu eta modu komunitarioan konponetzen saiatu.
- Helduen laguntza senti dezatela (hezkuntza-taldea, proiektuko taldea). Hasieran behintzat, beldurra galdu arte, ukondo ukondo egin.
- Inguruko pertsonak ezagutu, aurpegia, izena jarri eta historia jakin.
- Ingurunea, bertako historia eta leku esanguratsuak ezagutu.
- Dinamika ludikoak egin, jakinduria jolasetik eta dibertimendutik partekatu.
- Ikasleekin partekatzen duten helduek esperientziak eta anekdotak kon-

ta ditzatela. Lotura sortu.

- Hurbiltasuna harremanean, emozioari eta afektibitateari garrantzia eman.
- Ingurunera poliki-poliki hurbildu. Hurbildu aurretik, zer dakigu edo daki-gula uste dugu? Harritzeko aukera ere bai, ezagutuko dugunak ez baitu zerikusirik gure aurreko iruditerian zegoenarekin.

★ **Inguruneak parte-hartzea:**

- Auzoan bizitza egitea, erosketak...
- Auzoko sareetan parte hartzea.
- Zentroan auzora irekita dauden jarduerak egitea.
- Auzoan espazio komunitario bat sortzea.
- Konfiantzazko harremanak sortzea.
- Esperientzia pilotuaren inguruko pertsonak hasieratik partaide egitea.
- Proiektuaren prozesua arintasunez partekatzea.
- Talde eragile bat sortzea esperientziaren iraunkortasunerako.

★ **Laguntza:**

- Arintasuna komunikazioan.
- Prozesuaren zereginak koordinatzeko topaguneak.
- Hezitzaileen akonpainamenduan teoria eta praktika tartekatzea partaidetza komunitarioa zeharkako ildo gisa integratzeko.
- Zentroko zuzendaritzaren apustua.
- Zentroko zuzendaritzarekin harreman erraza.

### **Aurkitutako zailtasunak**

- Talde osoaren motibazioa lortzea proiektua bultzatzeko prozesu osoan eta etorkizunean.
- Ikastetxeko hezkuntza-taldearen eta proiektua bultzatzeko ardura duten pertsonen arteko elkartzeko tokirik eza. Koordinazio-tokirik eza, zereginen banaketa...
- Aldaketak ikastetxeko zuzendaritza-postuan.
- Ikasleen motibazioan gora-beherak.
- Ikasleek auzoan agertzeari dioten ezkutuko beldurra, gutxiespenaren beldur direlako.
- Zenbaitetan zentroen aldetik prozesuaren osotasuna ulertzeko zailtasunak.

- Irakasleek gehiegizko lan-karga izatea. Ikasgelatik kanpo ez dago ordu-rik hezitzaileen artean partekatze.
- Aldaketak proiektuaren koordinazioan.
- Jarduerak garatzeko udalaren baimenak lortzea.

## **Eragina**

### **\* GAZTERIA:**

- Gauzak beste era batera egin daitezkeela ikustea.
- Auzoa beste modu batera ezagutzea.
- Auzoko eragileekiko harremana eta auzoarekiko harremana ahalbidetzea.
- "Zerbait egiten dut eta hor geratzen da kalean".
- Kontaktua auzoko bizilagunekin. Auzoko pertsona batekin hitz egiten duten lehen aldia... (gazte atzerritarrak).
- "Egin zenuen errezeta itzultzaileek erabili dute, ondo atera zaie eta gustatu zaie". Autoestimuan duen eragina.
- Proiektuaren edukiak ikasleekin ikasgelan beste modu batera lan egiten laguntzen du.
- Haiengandik sortzen diren ideiak eta proposamenak gauzatzen direla eta balio handia dutela ikustea, zentroan, auzoan eta, ondorioz, baita beraientzat ere.
- Auzoan ikusiak sentitzea eta inguruan ditugun eragileekin elkarri eragiten hastea.
- Administrazio publikoengandik ikusiak eta entzunak sentitzea.
- "Auzoak entzun dezala eta ikus dezala zer egiten dudan", berria da haientzat. Egiten dutena interesatzen ez delako ideia baztertzen laguntzen die. Autoestimuan duen eragina.
- Egin beharreko jardueri buruzko erabakiak hartzerako orduan aktiboki parte hartzea, haien beharrak, jakintzak eta gustuak errespetatuz.

### **\* INGURUNEA**

- Geldiarazita zeuden lehenagoko kontaktuak hasi dira berriro eta beste harreman batzuk abiarazi dira. Kontaktua Auzokiderekin, Erlauntzarekin.
- Esperientzia pilotua dela eta, jendea loreontziez arduratzen da. Guztiena den zaintzeko gauza bat dagoela sentitzea. Taldeko ekintzen aberastasuna auzoan.

- Beste erakunde batzuekiko harremanak duen garrantziari balioa eman zaio. Izan ere, horretan emandako ahalegin eta denborak onura handiak ekarri dizkie zentroari eta ikasleei. (Frantziako Tourra, Bizan dohaintzak, Udalak espazioa uztea...).
- Fidiak elkartearen aldetik zentroetako gazteen arteko topaketa espazio bat sortzeko inplikazio altua.

### **Erronka berriak**

- Esperientzia pilotua denboran zehar mantentzea. Sostengatzea.
- Taldearen gain hartzea foro, sare... ezberdinetan parte-hartzea talde bezala.
- Ikasleei beste pizgarri eta ikaskuntza mota batzuk ematea.
- Zerbitzuen ikaskuntza lantzea.
- Hezitzaileek parte-hartzearen lidergoa hartzea.
- Parte-hartze komunitarioa zeharkako ardatz bezala integratzea OLHZn.
- Ez ahaztea ikasleak parte-hartze prozesu horretan integratzea.
- Proiektua Adsis Fundazioaren marko-proiektuan sartzea eta Bigarren Aukerako Eskolekin bat egina bezala sentitzea.

# FLORA TRISTÁN PERUTAR EMAKUMEAREN ZENTROAREKIN (PERÚ) LOTUTAKO ESPERIENTZIAK

## ◆ FLAVES

### ✧ Datuak:

- ✱ **Izenburua:** Nerabeen protagonismoa sustatzen, dituzten sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak gauzatu, sustatu eta defendatzeko, Villa El Salvador barrutian.
- ✱ **Data:** 2019ko urtarriletik –2021eko apirilera
- ✱ **Tokia:** Villa El Salvador – Lima – Perú
- ✱ **Parte-hartzaileak:**
  - **Nerabeak:** Villa El Salvadorko 5 hezkuntza-erakundetako nerabeek parte-hartu zuten.
  - **Erakunde edo pertsona laguntzaileak:** Flora Tristán Perutar Emakumearen Zentroko proiektuaren taldea.
  - **Tokiko eragileak:** parte hartu zuten barrutiko 4 osasun-etxek; barrutiko 5 hezkuntza-erakundetako irakasleek; Villa El Salvadorko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko barrutiko erakundeak eta Villa El Salvadorko lege-sustatzaileen emakumeen erakundeak.

### ✧ Laburpena

Proiektu honen helburua Villa El Salvadorko 5 hezkuntza-erakundetako 300 nerabe ahduntzea izan zen. Hori egin zen sexu- eta ugalketa-eskubideak (SUE) gauzatzeari eta herritartasunari buruzko prestakuntza-programa baten bidez. Ondoren, trebatutako nerabe horietatik 30 nerabe lider aukeratu ziren. 30 nerabe horiek nerabeentzako prestakuntza-tailerrak egin zituzten SUEei buruzko erantzunak eta orientazioa ematen duten berdinkideen hezitzaile izateko. Baita maskulinitate berriei buruzko tailerrak ere.

Prestakuntza-prozesu horrek nerabe liderren ezagutzak eta trebetasunak indartu zituen. Horrela, nerabeak SUEen garrantziaz eta haien babesteko beharraz jabetu zirenez, haien artean antolatzea eta FLAVES (Formando Líderes Adolescentes de Villa El Salvador, Villa El Salvadorren nerabeak prestatzen dituzten liderrak) taldea sortzea erabaki zuten.

Hala, nerabe liderrek osatzen duten erakunde hau pandemiaren testuinguruan zegoenez, eragina duten ekintzak egiten dituzte hainbat plataforma digitalen bidez (Fa-

cebook, Tiktok, Instagram, besteak beste). Giza eskubideen aldeko aktibismo birtuala gauzatzen dute, batez ere sexu- eta ugalketa-eskubideen eta indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko eskubidearen alde.

Gaur egun, FLAVES nerabeek osatutako erreferentziazko erakundea da Villa El Salvador barrutian eta SUEen defentsaren eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidearen alde borrokatzen du.

Eragina izan zuten ekintza hauek egin zituzten:

- Foroak eta solasaldi-taldeak: FLAVESek bultzatutako hainbat foro eta solasaldi-talde antolatzea eta parte-hartzea, baita beste nerabe-erakunde batzuekin eta erakundeekin elkarrekin bultzatutakoetan ere. Hainbat gai jorratu ziren, hala nola sexu-hezkuntza integrala, neskatilen eta nerabeen ahalduntzea, nerabeengana-ko sexu-indarkeriaren prebentzioa eta sexu- eta ugalketa-eskubideen defentsa. Foro horietako asko giza eskubideen aldeko data esanguratsuetan egin ziren.
- Nerabeen topaketak: Nerabeekin 2 foro egin ziren. Lehena "Nerabeen ahotsak ehuntzen, gure sexu- eta ugalketa-eskubideen alde", Villa El Salvadorko ikastetxeetako ikasleen parte-hartzearekin. Bigarrena, " Ahotsak ehuntzen, nerabeen haurdunaldiei eta sexu-indarkeriari aurre hartzeko", Villa El Salvadorko nerabeen taldeen eta ikastetxeetako eta beste barruti batzuetako nerabeen parte-hartzearekin. Bigarren topaketa horretan, FLAVESek nerabeen eskaeren agendari buruzko adierazpen bat bultzatu zuen.
- "Hablemos Sin Roche"(Lotsarik gabe hitz egin dezagun) podcast-a: 3 podcast egin ziren eta gai hauek jorratu ziren: "Sexu-hezkuntza integralari buruzko mitoak", "Jazarpen birtuala", "Nerabeentzako sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko arreta", "Nerabeentzako osasunean bereizitako arretaren beharra" eta "Nerabeak osasunerako arreta osora heltzea". Programa horietan, nerabeek beste nerabe batzuen zalantza nagusiei buruz hitz egiten zuten, baita indarkeria prebenitzeko gomendioei eta osasun-etxeetako SUEei buruzko informazioari buruz ere. Programa horiek zabaltzeko, FLAVESek spotify bidezko kanal bat du, "Flaves Perú" izenekoa.
- Tiktok aktibista: FLAVESek mezua helarazteko landutako estrategia, TIKTOK nerabeek asko erabiltzen duten plataforma honen bidez. Era berean, eragina duten ekintzak egitea lortu zen, hala nola, TIKTOK CHALLENGEak. Horien bidez, beste nerabe-erakunde batzuei dei egiten zitzairen tiktokak egin zitzaizkien, nerabeen haurdunaldiari, sexu-hezkuntza integralari eta desagertutako emakumeei buruz besteak beste.
- "Tejiendo Voces en la Radio" (Irratian Ahotsak Ehuntzen) irratsaioa: FLAVES proiektuak iraun zuen bitartean, nerabeek egiten zuten irratsaio honetan parte hartu zuen. Villa El Salvadorko irrati nagusietako bat den Stereo Villa irratiaren facebook orriaren bidez transmititu zen. Programan, nerabeek informazioa ematen zuten SUEei eta indarkeriaren prebentzioari buruz eta hizlari espezialistak ere gonbidatzen zituzten. Honako gai hauek jorratu ziren: indarkeria maitemintzean,

nerabeen haurdunaldia, sexu-indarkeria, sexu- eta ugalketa-eskubideak pandemian eta sexu-aniztasuna eta nerabetasuna.

- "Lonchecito con FLAVES" (FLAVESekin mokadua) Instagrameko emanaldiak: FLAVESen Instagram orrian zuzeneko emanaldien bidez egiten den programa bat da. Bertan, FLAVESeko nerabe batek elkarrizketatzen zuen hizlari bat gonbidatzen zen nerabeak kezkatzen dituzten gaietarako buruz hitz egiteko. Emanaldi horiek egin ziren nerabe gehiagorengana iristeko beste estrategia digital batzuk aurkitzeko.
- Erreferentziako eta kontrarreferentziako sistema: FLAVESek erreferentzia- eta kontrarreferentzia-sistema bat egiten parte hartu du. Sistema horren bidez, osasun-ikastetxe eta -etxeek koordinatu egiten dute ikasleak nerabeen osasun-arreta osorako zerbitzura sar daitezen. Bertan, sexu- eta ugalketa-osasuneko aholkularitza jaso ahal izango dute, besteak beste. FLAVESeko nerabeek sistema horretan nerabe gehiagok parte hartzea bultzatzen dute beren ikastetxeetan.
- Sare sozialak: FLAVESek hainbat plataforma digital ditu aktibismo birtuala gartzeko, hala nola, Facebook, Instagram, Tiktok eta Spotify. Plataforma horietatik informazio-flyerrak, bideoak eta ekitaldiak partekatu dituzte gai hauetan eragiteko: SUEak, sexu-hezkuntza integrala eta nerabeen indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko eskubidea.
- Nerabeen Adostasunerako Gunea: gunea hori Villa El Salvadorko Udalak bultzatzen du. Bertan, nerabeen erakundeek indarkeria prebenitzeko ekintzak antolatzen dituzte. FLAVESek parte hartzen du eta espazio hori indartzea sustatzen du.

### ✧ **Gakoak**

Gazteen parte-hartzea eta lidergoa bultzatu duten gakoak:

- Trebakuntza-tailerrak eta prestakuntza-programak. Horien bidez, FLAVESeko nerabeek dituzten giza eskubideak, sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta horietan sakontzea lortu zuten. Baita eskubide horiek urratzen direnean sortzen den nerabezaroko problematika onartzea, beren burua eskubidedun pertsonatzat onartzea eta hori guztia nerabe gehiagorekin zabaltzearen garrantzia aitortzea ere.
- Villa El Salvadorko hainbat hezkuntza-erakundetako nerabeen parte-hartzeak FLAVESen barrutian ekintzak gehiago zabaltzen lagundu zuten. Horrela, beste erakunde eta instituzio batzuek FLAVES Villa El Salvadorren SUEen aldeko nerabe-talde aktibo bezala aitortzen dute. Pandemiak ez zuen hori mugatu.
- FLAVESen eta beste nerabeen erakunde batzuen artean antolatutako ekintzek lagundu zuten gizatalde honen esperientzia indartzen, bere eskubideetan eragiteari dagokienez. Horrela hainbat kanpainen parte izan ziren, hala nola: "Ez gaitzazu ikusiak bezala utzi" (SHI-rako kongresurako hautagaienezako), FESTIKTOK (pertsonek salerosketaren prebentziarako), "Betetzeko garaia da" (SHIren alde) eta "Diskriminazioa eten dezaz"

gun" (nerabegaroko haurdunaldiagariko diskriminazioa nabarmentzen).

- FLAVESek plataforma birtualetan presentzia izateko sarrera eta laguntza, horregatik sustatu ziren programa hauek: "Lonchecito con FLAVES" (instagram bidez), "Hablemos sin roche" (spotify bidez) eta "Tejiendo voces en la radio" (facebook bidez). Hala, aktibismo birtuala garatzea lortu dute eta hainbat plataformatatik eragina izan dute.
- Adostasun-espazioetan parte hartzea. Gabriel, FLAVESeko kidea, hautatu zuten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko Villa El Salvadorko Barrutiko Adostasun Erakundeko Nerabeen Adostasunerako Espazioko ordezkari titular moduan. Hori aukera bat da nerabeen lidergoa garatzeko erakunde publikoen aurrean eta erakundearen ikusgarritasunerako.
- Flora Tristán Perutar Emakumearen Zentroak emandako laguntza, orientazio eta aholkularitza bidez, garrantzitsua izan da FLAVESek, gizatalde bezala antolaketa- eta barne-partaidetzarako moduak indartu ahal izateko eta gizatalde bezala sendotzea lortzeko.

#### ✧ **Aurkitutako zailtasunak**

- Covid 19aren pandemiagarik testuinguruak gizataldeak jarduera birtualetan parte hartzea sustatu zuen. Aurrez aurreko ekintza eta eskaintzen duten esperientzia ere garrantzitsuak dira erakunde baten prestakuntza aktibistarako.
- Parte-hartzaileak gutxiagotzea. Parte-hartzaile batzuek ikastetxea amaitu zuten eta, beraz, orain horien jardueretako bat lan egitea, institutuetan ikastea edo unibertsitatean hastea izan zen. Hala, FLAVESen parte hartzeko denbora murriztu zen zenbait parte-hartzailearentzat.
- FLAVESen eta kide diren hezkuntza-erakundeetako nerabeen arteko ekintza bateratuetan parte hartzeko aukera gutxi covid testuinguruagaritik. Egoera hori ez zen lagungarria izan FLAVESeko kideak berritzeko.

#### ✧ **Eragina**

- Barrutiko nerabeengan eragina izan du. Ekintza birtualetan, FLAVESek eskoletan modu zabalean hitz egiten ez ziren gaiak kokatzea lortu du (ikastetxeetan SHIa gutxi jorratearen testuinguruagaritik), hala nola nerabeen haurdunaldia, nerabeen sexu- eta ugalketa-osasuneko arreta, indarkeria maitemintzean eta bizitza-garai horretan garrantzi eta kezka handikoak diren beste gai batzuk.
- Komunitatean ere eragina izan du. Helduentzako sentsibilizazio-ekintzak egitea lortu da. Horrela FLAVESen ekintzen bidez, helduek SUEekin lotutako nerabeen arazoak artatzearen garrantzia ikuste eta aitortzea lortu dute. Halaber, erreferentziarako eta kontrarreferentziarako sisteman parte hartzen duten osasun-profesionalek eta hezitzaileek, bai eta ba-



rrutiko oinarrizko gizarte-erakundeek ere, nerabeak SUEei dagokionez eskubidedun pertsonatzat hartzen dituzte. Horrek eragina izan du barrutiko oinarrizko gizarte-erakunde batzuen ikuspegi helduzentrista gutxitzean, eta orain belaunaldien arteko antolaketaren garrantzia aitortzen dute.

- Agintariengan eragina izan du. FLAVESek agintariak entzuteko eragina duten guneetan parte hartu du, hala nola, elkarrizketa-mahaietan eta kongresuko jardueretan, besteak beste. Halaber, FLAVESek aktiboki parte hartzen duen Villa El Salvadorko Udalak bultzatutako Nerabeen Adostasunerako Espazioak nerabeen hitzari lekua ematearen garrantzia erakusten digu.

#### ✧ **Erronka berriak**

- FLAVESeko egungo gazteen parte-hartzea bultzatzea eta tartean sartzea. Izan ere, gizatalde hori sortu zuten nerabe gehienak gaur egun gazteak dira eta prestakuntza heldua dute giza eskubideei eta SUEei buruz, bai eta esperientzia ere ekintza eraginkorretan.
- Gizataldetik komunikazio-ekintzak bultzatzen jarraitzea, hala nola irratsoa eta Instagramen egindakoa. Villa El Salvadorko eta beste barruti batzuetako nerabeen erakundeekin aliantzan garatzen jarraitzeko aukera emango die.
- FLAVESek Villa El Salvadorko Nerabeen Adostasunerako Espazioan parte hartzea. Erakunde horrek aurrez aurreko jarduerak egingo ditu, eta bertako kideak aktiboki egotea eskatuko du. Hori beharrezkoa da, aukera bat baita gizataldeak barrutiko nerabeen SUEak defendatzeko ekintzak sustatzen jarraitu ahal izateko.
- Testuinguru politikoa erronka bat da FLAVESentzat eta gainerako nerabeen erakundeentzat. Alde kontserbadoreen kongresukideen presentziak erakusten digu testuinguru zaila dagoela indarkeriaren prebentzioarekin eta SUEen hedapenarekin lotutako emakumeen, gazteen eta nerabeen eskubideak lortzeko eta betetzeko.
- Aurrez aurrekoetara itzultzeak eta egiten diren ekintzek ere aurrekontu ekonomikoa eskatzen dute. Hori, oraingoz, ez dago FLAVESen esku, nerabeen gizataldea baita.
- FLAVESen nerabe berriak sartzea ahalbidetuko duten SUEen defentsaren aldeko ekintza eraginkorrak eta prestakuntza-ekintzak egitea lortzea.

### ✧ **Datuak:**

- ✱ **Izenburua:** San Juan de Luriganchoko nerabeek sexu- eta ugalketa-eskubideak erabiltzea sustatzen
- ✱ **Data:** 2016 – 2018
- ✱ **Tokia:** San Juan de Lurigancho – Lima – Perú
- ✱ **Parte-hartzaileak:**
  - **Nerabeak:** San Juan de Luriganchoko 5 hezkuntza-erakundeetako nerabeek parte hartu zuten.
  - **Erakunde edo pertsona laguntzaileak:** Flora Tristán Perutar Emakumearen Zentroko Sexu Eskubideak eta Herritarrak Osasunean programako lantaldea.
  - **Tokiko eragileak:** Parte hartu zuten barrutiko osasun-etxeko osasun-profesionalek; barrutiko ikastetxeetako irakasleek; San Juan de Luriganchoko Nerabeen Haurdunaldia Prebenitzeko eta Arreta emateko Hitzarmenerako Mahaiko kideek.

### ✧ **Laburpena**

Esku-hartzeak San Juan de Luriganchoko nerabeek sexu- eta ugalketa-eskubideak herritar diren moduan erabiltzea lortu nahi izan zuen. Gainera, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko banakako eta taldeko gaitasunak indartu nahi izan zituen, jakinaren gainean dagoenaren erabakiak hartzeko eta kalitatezko programak eta zerbitzu publikoak eskatzeko, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik.

### ✧ **Gakoak**

Gazteen parte hartzeari eta lidergoari lagundu dieten gakoak:

- **“Nerabeen lidergorako prestakuntza”** hezkuntza-programa egin.
- Barruti osoan **ekintza mobilizatzaileak edo hezkuntza-entreenimendu** deszentralizatuak garatu: kultura-kalejirak, gazte-karabanak, hiriko esku-hartzeak, tokiko arte-adierazpenak. [Gazteen haurdunaldia prebenitzeko gazteen feria.](#)
- Nerabeak dauden tokietan **informazio-kanpainak eta hezkuntza-komunikazio** eta zabalkunde-ekintzak gauzatu. [Goazen denok gure esku-bideen aldeko Kultura-jaialdira.](#)
- Proiektuan parte hartzen duten [nerabeen topaketak](#) barrutiko nerabeen beste erakunde batzuekin batera. Helburua zen nerabeen haurdunaldia-

ren prebentzioari eta sexu- eta ugalketa-eskubideak erabiltzeari buruz dituzten eskaerak eta proposamenak ezagutzea.

- **Emakumeen futboleko eta LTGB boleibol mistoko txapelketa**, jarduera asko zabaldu zen eta hezkuntza-programako nerabeak LTGB nerabee-tara hurbiltzea lortu zuen.
- ["Berdintasunaren aldeko sareak ehuntzen"](#) izeneko **irratsaio** bat ekoiztu. Herritarrak, oro har, nerabeen eskubideen inguruan sentsibilizatzeko helburua zuen, batez ere SUEei eta nerabeen haurdunaldiaren prebentzioari buruz. 10 irratiko programa eman ziren honako gai hauekin: a) Nerabeen haurdunaldia eta sexualitate arduratsua, b) Metodo antisorgailuak, c) STG eta GIB/HIESaren prebentzioa, d) Genero-indarkeria, e) Estatu laikoa, f) Sexu-indarkeria eta feminizidioak, g) Sexu-hezkuntza integrala ikastetxeetan, h) Sexu-aniztasuna.
- Nerabeen batukada bat sortzea: ["Joan gaitezen berdintasuna ehuntzen"](#), gazteen SUEak sustatzen eta defendatzen laguntzeko proposamen bezala.
- Eragin politikoa duten ekintzak, tokian tokikoak (San Juan de Luriganchoko Haurdunaldia Prebenitzeko Hitzarmen Mahaia) eta estatuan (Errepublikako Kongresua).

#### ✧ **Aurkitutako zailtasunak**

- Une larrietako bat eskola-curriculumean genero-ikuspegia txertatzearen aurkako kanpainak izan ziren. "Ez nire seme-alaben kontra aritu" kanpainak genero-ikuspegiari buruzko informazioa desitxuratzen eta presionatzen jarraitu zuen eta biztanleria gehiagorengana iristeko era guztietako komunikazio-tresnak erabili ziren, behar bezala informatzeko aukerarik eman gabe.
- Irakasleriaren greba izan zen hezkuntza-erakundeetako nerabeekin egindako hezkuntza-programaren garapena atzeratu zuen arrazoi larrienetako bat.

#### ✧ **Eragina**

- Guztira 280 nerabe trebatu dira Hezkuntza Programan.
- Trebatutako nerabeek sexu-eskubideen eta ugalketa-eskubideen gaineko eragin-ekintzekin parte hartu zuten, hala nola Nerabeen Haurdunaldia Prebenitzeko Mahaia.
- Hezkuntza-sektorearekin modu antolatuan lan egitea lortu da, hezkuntza-programa garatu dugun 5 hezkuntza-erakundeetako zuzendarien eta irakasleen babesarekin, sexu-hezkuntza integrala eta genero-ikuspegia ezartzearen aurkako kanpainen bidez etengabeko eraso fundamentalistak jaso diren arren.

- Tokiko erakunde eta agintariek osatutako Nerabeen Haurdunaldia Prebenitzeko Mahaiarekiko harremana indartu egin da. Erakunde eta agintari horiek talde lana egin dute nerabeen haurdunaldiaren eta STlen prebentzioaren alde.
- Bi barrutiko informazio-kanpainak arrakasta izan dute Gazte-azoken bidez, nerabeen haurdunaldia prebenitzeko astearen esparruan. Komunitatearen arreta bereganatu dute eta barrutian eta nazio mailan arazo hori prebenitzeko eragina duen erreferente handi bihurtu dira.
- Nabarmenezkoa da nerabeek sexu- eta ugalketa-eskubideetan eragiteko duten gaitasuna, nazioan nahiz nazioartean eragina izatera iritsi baitira, irrati-elkarrizketetan, kongresukideekin entzunaldietan eta nazioarteko ekitaldietan izan dituzten esku-hartzeekin.
- Hezkuntza-erakundeetako gutxi gorabehera 3.000 nerabeek sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak ezagutu zituzten Gazteen jai-azoketan.
- San Juan de Luriganchoko Vayamos-eko lidergo feministak nabarmendu eta indartu dira. Lehen aldiz ikusaraztea lortu da feminismoarekin identifikatzen den eta bere burua feministatzat izendatzen duen nerabeen belaunaldi bat.
- Nerabeek sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko Nerabeen agenda bat dute, barrutiko hainbat nerabe-talderekin adostutako proposamenekin eta eskaerekin. Hau dokumentu estrategikoa da nerabeek eskubideak gauzatzearekin zerikusia duten funtsezko tokietan izan dezaketen eraginerako eta LGTBI+ nerabeen eskaerak onartzen dira ere.
- Errepublikako kongresukideek Nerabeen agendaren edukia zehatz-mehatz ezagutzea lortu zuten. Gainera nerabeen sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko borrokarako eta defentsarako konpromiso-akta bat sinatu zuten, horrela barrutian eragina izateaz gain, nazio-mailan ere eragina izanda.
- 8 lan-jardunaldi egin ziren San Juan de Luriganchoko 34 osasun-etxeetako Nerabeen eta Gazteen Bizitza Etapa artatzen duten 167 osasun-profesionalei nerabeei SUEetan ematen zaien arretari buruzko ezagutzak indartzeko.
- Nerabeen Haurdunaldia Prebenitzeko Hitzarmen Mahaiak proiektuko nerabeekin landutako proposamenak txertatu zituen 2018ko Ekintza Planean eta 2019ko Ekintza Planean, baita sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko Nerabeen agendako proposamenak ere.
- Eragin bideoak eta sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko adierazpenak egin dira.
- Bideoak: [Tejiendo Redes proiektuaren eraginaren laburpena](#) / [Genero berdintasunaren aldeko gazteen adierazpena](#)



✧ **Erronka berriak**

- Kide berriak izatea ekintzekin jarraitzeko, kontuan hartuta taldeko kideak gazteak direla eta ikasketei denbora eskaintzen ari direla.
- Barrutian berdinei/pareei erantzuteko ekintzak eta jarduerak sortzea.
- Sare sozialetan edukia sortzea, sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzen jarraitzeko.
- Gazteen ekintzak auto-kudeatzea.

# 04

## ONDORIOAK

**Parte-hartze komunitarioa** bizia da, organikoa. Alde batetik, prozesua den aldetik, funtsean dinamikoa eta epe luzekoa da. Bestetik, komunitarioa errealitate performatiboa den heinean (praktikatuz gero existitzen da), egitura bat baino egiteko modu bat da. Bertan hainbat pertsona eta eragile lotzen dira elkarrekikotasun-printzipioaren eta identitate kolektibo motaren baten bidez.

Horregatik, funtsezkoa da prozesuaren parte izatea, etengabe eraikitzen den komunitate horren parte sentitzea. Hori dela eta, ez dago funtzionatzeko formula magikorik, ezta bakarra ere.

lido horretatik, hemen partekatzen ditugun gakoak ez dira zerrenda osoa ezta ordenatua eta baliteke batzuek ez balio izatea kasu batzuetan. Pertsona bakoitzak, talde bakoitzak, bere testuingurua, bere errealitatea irakurri behar du, bere energiekin eta gaitasunekin batu behar da, bere denborak, baliabideak eta aliantzak neurtu behar ditu, jabetu behar da barne dauden pertsonak markatzen dituzten desberdintasunez, intersektionatzen dituzten zapalkuntzez eta pribilegioez, ahalmenak eta gabeziak identifikatu behar ditu. Hortik, une bakoitzean ikusi ahal izango du zein diren gako garrantzitsuenak, zein diren jada aplikatu daitezkeenak eta zein diren lehentasunezkoak, parte-hartze eta eraldaketa sozial maila sakonagotara eramango duten urratsak eman ahal izateko.

Badakigu parte-hartzaileak izeneko ekimen guztiak ez direla maila berekoak. Jarduteko modu parte-hartzaileetarantz joateak gaitasun eta jarrera jakin batzuk lantzea dakar, prestatzea, desikastea, mekanismo jakin batzuk ezartzea, zenbait baliabide esleitzea eta horretarako borondatek abiatzea. Komunitarioa bazterketa-arriskuan dauden gazteen lidergotik eraikitzeak esan nahi du ahal dela uste izatea, gazte horiek ahal dutela, tokia ematea, lagun izatea eta prozesu pertsonalak eta taldekoak erraztea.

